



AKTEA/15

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2022-05-10)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2022-05-10 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:04
Amaiera-ordua:	08:12
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	ZUMETA GARRO ALAZNE
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Datea: 11/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2022-05-03 TGB (14)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- E.A 20.2 eremuko Xehetasun Azterlana hasikeraz onartzea.
- 4.- Arane Gibelortzaga auzoko 13 poligonoko 33 eta 34 lursailetan animalien ustiapenerako gehienez 3UGM jasotzeko etxola bat eraikitzeko obra lizentzia eskaria onartzea.
- 5.- 2022 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikuluak idazteko eta argitaratzeko oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2022-05-03 TGB (14)

Bertaratutako batzarkideek 2022ko maiatzaren 3ko 14/2022 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.


2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- E.A 20.2 EREMUKO XEHETASUN AZTERLANA HASIKERAZ ONARTZEA.

Xedea

E.A 20.2 eremuko Xehetasun Azterlana hasikeraz onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko martxoaren 14an Bermeo Ipar Orratz, SLeK, E.A 20.2 eremuko Xehetasun Azterlana aurkeztu eban.

Bigarrena: 2022ko apirilaren 20an URA Ur Agentziaren aldeko txostena jaso zan.

Hirugarrena: 2022ko apirilaren 22an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Laugarrena: 2022ko apirilaren 22an Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Argudioak

Lehenengoa: Udal arkitektoaren txostenean aipatzen dan lez, aurkeztutako dokumentuaren helburuak hurrengoak dira:

- Gaur egun, A.20 Lurralde areako E.A. 20.2 Esku-Hartze Arean Klarisen komentua kokatzen da.
- Bermeoko HAPOk hurrengoa xedatzen du A.20. Lurralde Areetarako EA-entzat:

Hiri lurzoru finkatua

Azalera

Guztira 51.240 m²

Lukuruzko aprobetxamenduak

Sestra gainean eraikia "SR" 56.041 m²

Sestra azpian eraikia "BR" 13.472 m²

Etxebizitzetan eraikia 52.483 m²

Lokaletan eraikia 3.558 m²

Etxebizitza kopurua 429

Dagozan etxebizitzak 429

Antolam. kanpoko Etx 0

Etx. gehikuntza 0

Eraikigarritasuna 1,09 m²/m²

Etxebizitza dentsitatea 83 viv/ha



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Datea: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



Hirigintza baldintzak: Dagozanak, HAPO honetako Ordenantza orokorrekin eta gainontzeko xedapenekin bat datozenak.

- Xehetasun azterlan honek, EA 20.2 eremuko eraikinaren lerrokadurak aldatzea du helburu nagusi bezala, bolumen berri bat sortuz, bertan eraikinaren barne komunikazioko eskailerak eta igogailua kokatzeko.
- Bolumen berriak 9 x 3 metroko azalera izango luke eta 13,60 metroko altuera.

URA Ur-Agentziak bere txostenean adierazten du, aldeko irizpena ematen duela Klarisen komentua birgaitzeko xehetasun azterlana udalak hasieraz onartzeko. Era berean, adierazten du, xehetasun azterlana gauzatzeko polizia-eremuan egiten diren jarduketa guztiek URA Ur-Agentziaren nahitaezko administrazio-baimena beharko dutela.

Hirigintza eta lurzoru 2/2006 legeak bere 73 artikuluan zehazten ditu Xehetasun azterlanen helburuak:

73. artikulua.– *Xehetasun-azterketak.*

1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun- azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

- a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentz edo osatzea.*
- b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.*
- c) Urbanizatzelanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.*

3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.



Hirigintza eta lurzoru 2/2006 legeak bere 74. artikuluan zehazten ditu Xehetasun azterlanek jaso beharreko dokumentazioa:

74. artikulua.– Agiriak.

Xehetasun-azterketen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

1.– Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, aurreko artikuluko 2. paragrafoan ezarritako

legezko mugak errespetatu egin direla, eta bestetik, bere kasuan, plan orokorreko edo garapen-plangintzako

zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.

2.– Informazio-planoak.

3.– Antolamenduaren planoak.

A.20 Lurralde areako E.A. 20.2 Esku-Hartze Arean Klarisen komentuaren eraikinak duen eraikigarritasuna eta ordenazio xehatua mantentzen dira, soilik moldatzen dira, Bermeoko HAPOak definitutako lerrokadurak.

Bigarrena: Udal arkitektoak egindako txostenean azaltzen dan lez, E.A 20.2 eremuko Xehetasun Azterlana indarrean dagoan legeak ezarritako araubide eta irizpideetara egokitzen da, beraz, ez dago eragozpenik onartzeko:

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 98. artikuluan xehetasun azterlanen izapidetzea arautzen da:

98. artikulua.– *Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.*

1.– Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespena hiru hilabeteko epean.

2.– Hasierako onspena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.

3.– Xehetasun-azterketei behin betiko onspena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onspena ematen zaienetik. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

Tokiko Araubideari buruzko 1985eko apirilaren 2ko Oinarrizko Legeko 21. artikulua arabera,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



xehetasun azterlanaren hasikerako onespena alkateari jagoko, baina eskumen hori 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: E.A 20.2 eremuko Xehetasun Azterlanari hasikerako onespena emotea.

BIGARRENA: Interesdunei 20 eguneko entzunaldia emotea, eta 20 egunean jendaurrean ipintea, BAOn eta egunkari batean argitaratuta.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4.- ARANE GIBELORTZAGA AUZOKO 13 POLIGONOKO 33 ETA 34 LURSAILETAN ANIMALIEN USTIAPENERAKO GEHIENEZ 3UGM JASOTZEKO ETXOLA BAT ERAIKITZEKO OBRA LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Arane Gibelortzaga auzoko 13 poligonoko 33 eta 34 lursailetan animalien ustiapenerako gehienez 3UGM jasoteko etxola bat eraikitzeke obra lizentzia eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko abuztuaren 30ean, ***0224** NAN zenbakidun jaunak, Arane Gibelortzaga auzoko 13 poligonoko 33 eta 34 lursailetan animalien ustiapenerako gehienez 3UGM jasoteko etxola bat eraikitzeke obra lizentzia eskaria aurkeztu eban udalean.


Bigarrena: 2021eko abenduaren 20an Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren aldeko txosten baldintzatua jaso zan.

Hirugarrena: 2022ko otsailaren 10ean udal arkitektoak txostena egin eban eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak ezarritako baldintza betetzen zanaren justifikazioa aurkeztea eskatu jakon.

Laugarrena: 2022ko martxoaren 16an ***0224** NAN zenbakidun jaunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu eban.

Bosgarrena: 2022ko martxoaren 23an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban

Seigarrena: 2022ko apirilaren 25ean eskatutako fidantzak ipini dira udal Diruzaintzan.



Zazpigarrena: 2022ko apirilaren 28an Urigintza Saileko teknikariak txostena eta erabagi proposamena egin ebazan.

Argudioak

Bakarra: Espedientean azaltzen diran txosten tekniko eta juridikoan aipatzen dan lez, eskaria bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin. Kasu honetan, Arene Gibelortzaga auzoko 13 poligonoko 33 eta 34 lursailak Urdaibai Biosfera Erreserbaren eremuan kokatzen dira eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak egindako txostenean aipatzen dan lez, eskaria bat dator Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketaren Plan Zuzentzaileak xedatutakoarekin .

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emoteko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.


Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ***0224** NAN zenbakidun jaunari, eskatutako obra lizentzia emotea, Arane Gibelortzaga auzoko 13 poligonoko 33 eta 34 lursailetan animalien ustiapenerako gehienez 3UGM jasoteko etxola bat eraikitzeko, aurkeztutako proiektuaren arabera.

BIGARRENA: Lizentziaren eraginkortasuna baldintza honeek betetzera baldintzatuko da:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Urigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarri da udalean.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.



- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak bere txostenean zehazten dituen baldintzak errespetatu beharko dira.

Etxolaren diseinuak irekiguneak izango ditu, fatxadaren goiko aldean, inolako itxiturarik gabe eta fatxadaren 1/3 altuerarekin, airea irten eta sartu ahal izateko. (ahal dela ekialde-mendebalde orientazioan). Xedea da abereentzako benetako osasungarritasun baldintzak bermatzea eta animalientzako gutxieneko aireztapena ziurtatzea, horretarako aireztapen naturaleko sistema gurutzatua erabiliz edo konbekzio bidezko aireztapen naturala bermatuz.

- Inguruko lursailera 10 metroko distantzia errespetatu beharko da eta bide publikoetara gutxienez 5 metrokoa.
- Teilatua gorria izan beharko da eta isurkiek, gutxienez %30eko eta gehienez %45eko malda izan beharko dute, betiere, teilatu hegala altuera maximoa 3 metrokoa izanik eta gailurrarena berriz, 4,20mkoa.
- Segurtasun arrazoiengatik, materialak gordetzeko beharrezkoa balitz espazio itxi bat eraikitzea, etxolaren barrualdean kokatu eta eraiki beharko da. Espazio hori Urdaibaiko PRUGaren 4.4.3.19 artikuluan zehaztutakora egokituko da, baita, 4.4.5.38 artikuluko 2.c atalera.
- Instalazioak sortu ziren unean zuten erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira, erabilera aldatu ahal izateko, dagokion lizentzia izapidetu beharko da.
- Etxola horrek ezin izango du inoiz etxebizitza erabilerarik izan, eta ezin izango du izan etxebizitza erabilerari dagokion instalaziorik, adibidez, tximiniak, antenak, etab.
- Putzu septikoa jarri nahi izanez gero, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak bere 4.1.2 artikuluan zehazten duen bezala, hondakin-uren kasuan lurrerako infiltrazioa izango da ebakutzeko lehentasunezko aukera, eta kasu guztietan, Uraren Euskal Agentziak emandako isurketa baimena beharko dela. Beraz, ezin izango litzateke putzu septikorik jarri URA Uraren Euskal Agentziak emandako isurketa baimena aurkeztu gabe, eta hala balitz, URA Uraren Euskal Agentziak baimenduko balu, baimenean jasotako baldintzak bete beharko dira.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Baldintza honeetat gain, obrea egiteko lizentzia eraginkorra izateko, lizentzia honeri erantsita doazan baldintza orokorrak bete beharko dira.

Ohartarazoten da baimen hau ez dala eraginkorra izango, baldintza guztiak betetzen ez diran bitartean.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei jagoken obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diran arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatuta aurkeztu beharko da, baita jagokon Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko dan, **lanek, indarrean dagoan araudiagazko daukien egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.**
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten dan dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu dirala egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organismoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegituran linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanearako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Datea: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispin-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

LAUGARRENA: Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi dan aldaketa oro udalari jakinarazi beharko jake, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gaintitzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagokiozan administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko dau.

BOSGARRENA: Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoen eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenatarako eta egiaztapenatarako sarbidea eman beharko jake, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA: Obrearen aurrekontua 31.023,65 €koa da. Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Era berean, obrak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaoz, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko dauala, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badau behintzat.

ZAZPIGARRENA: Obrak egiten diran bitartean, legez eskatu daitekeezan segurtasun neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dagozan pertsonen kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA: Lizentziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitekeezan kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA: Obretako hesi, aldamiu eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA: Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizentziaren titularraren erantzukizun eksklusibopean.

HAMAIKAGARRENA: Baimen honek eragina izango dau udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez dauz aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA: Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagokizan tasak eta tributatuak



likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

OBRA HANDIETAN BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

Obra lizentzia emoten dauen erabagian agertzen diran baldintzakaz batera, beste baldintza honeek be, bete beharko dira:

1.- Dagokion arkitektoak idatzi eta jagokon alkargoak behar dan moduan oneretxia emonda aurkeztuko da proiektu tekniko, eta, bai honi eta bai emoten dan lizentziari be zehatz lotuta egingo dira obrak.

2.- Berau kokaturik dagoan kaleko lerrokadura ofizialetara egokituko da eraikuntzea. Udal arkitektoak azalduko dau horreek lerrokadurak zeintzuk diran.

3.- Obra lizentziaren kopia kanpotik ikusteko moduko leku baten egon beharko da lanak egiten diren bitartean, esaterako kolarreko kristalean, atarian, auzoko iragarki taulan...

4.- Lizentzia eskatu eta lortu ostean, eskatzailea honako honeetara egongo da behartuta:

- a) Urigintza arloko arauak eta ezarritako baldintzak oso-osorik betetera. Honeen baldintzen artean, funtsezkoa izango da, aplikagarria dan kasuetan, jarritako ildo ofizialetara zehatz atxikitzea obrea.
- b) Ordenantza fiskalek ezarten dabezan zergak ordaintzera. Eskaria egiten dan momentutik onartzen da betebeharrak hori.
- c) Lizentzia dala-eta, sortzen diran gastu guztiak ordaintzera, bardin, bide publikoan, harri-zoletan, pasealekuetan, espaloietan, urbideetan, faroletan eta abarrean be; orokorrean, jabari publikoko objektu narriagarrietan sortu leikezan kalteak ordaintzera.
- d) Bai obrea burutzen dagoan bitartean, bai honen amaieran be, udal zerbitzuei ikuskapena egiteko aukerea emotera. Ezarritako baldintzak bete dirala frogatuko dabe honeek ikuskapenak.
- e) Lanek irauten daben bitartean gertatu leikezan intzidentzia guztien erantzulea izatera.
- f) Indarrean dagoan legediak esijitutako ganerako betebeharrak betetera.
- g) Ur kontagailua ipini beharko da, obrea burutzen dan bitartean kontsumitzen dan ura neurtzeko. Zuinketa Aktea izenpetu aurretik jarri beharko da kontagailu hori, Ur Hornidurea eta Ur Zerbitzuaren Kudeaketarako Erregelamenduaren 78. artikulua xedatutakoa betez. Kontagailua ipinteko beharrezkoa dan eskaria egin beharko da udaletxe honetan, erregelamendu horren 5. artikulua xedatzen dauenaren arabera.
- h) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 19an argitaratu zan Bermeoko Udaleko Zaratei eta dardarei buruzko Udal Ordenantzea beteko da.
- i) Hormigoi kamioiak ezin izango dira garbitu obran bertan, kamioiak garbitzean sortzen dan zementuzko karesnedun ura kainu-zuloetara joaten dalako eta kainu-zuloak itxi egiten diralako.
- j) Udalak obrea hartu orduko Udal Zerbitzuek kainu-zuloak ikuskatu egingo dabez, eta itxita egon ezker, esleipendunak garbitu egin beharko dauz, beti be udalak obrea hartu baino lehenago.
- k) Zuinketa aktan kalearen egoerea zehaztuko da (galtzada-harriak eta espaloia), beharrezkoa bada, bizigarritasuna emon baino lehen konpondu ahal izateko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



5.- Horretarako legez baimenduta dagoan pertsona baten zuzendaritza fakultatiboan burutuko obra; zuzendari fakultatibo horrek obran jarduteari izten badeutso, hiru egunen barruan eta jagokan alkargo ofizialak onetsitako ofizio bidez, obran sekzioari emongo deutso horren barri. Jabeak, orduan, zuzendari fakultatibo barria izendatuko dau eta sekzioari idatziz jakinarazo enkargu-orri egokia eta oneretxia emondakoan. Obrearen zuzendari fakultatiboak uko egin eta hiru egun igaro eta gero, izapide hori oraingino bete ez badau, Obra Sekzioak lanen jarraipena etengo dau formalidade hori bete arte.

6.- Obra irauten dauen bitartean proiektuan aldaketarik sartzea beharrezkoa bada, aurretik obra printzipalarentzat egin dan moduan, jagokan baimena eskatuko dau. Proiektua aurkeztu zanean eskatu bada edo egindako kitapenarena baino diru-kopuru handiagoa izateko arrazoirik eragiten ez bada, ez da sortuko eskubiderik. Holan izan ezean, diferentzia bakarrik ordainduko da.

7.- Eskatzaileak udaleko funtzionarioen esku itziko dauz planoen aleak onartuta eta zigilua emonda.

8.- Berehala erabiliko ez diran hutsune guztiak itxi egin beharko dira. Itxierea itxurosoa izango da eta ez da onartuko barrualdea ikusteko modurik izatea, ezta leundu eta pintatu bako trenkadarik, oholtzarik edo antzeko materialik be.

9.- Hasitako obra ezin izango dira itzi amaitu barik. Hori gertatzen bada, udalak beharrezkoak diran xedapenak aginduko dauz. Lanak amaitzea agindu ahal izango dau, orubearen eta eraikinaren kargura.

10.- Obrak amaitu eta gero, jabeak jakinaren ganean ipiniko dau udala hamabost eguneko epe barruan. Jakinarazpen honegatzat batera, obrea, onartutako proiektuaren arabera eginda dagoala frogatuko dauen obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

11.- Etxebizitzak okupatu aurretik, Alkatetzeari eskatuko jako bizigarritasun-zedulea. Udal aginteak ez dau baimenduko altzariak etxe-aldatzerik, ezta establezimendua irekiterik be, aurreko esan-multzozan ezarri dan moduan, emondako eraikuntza-lizentziaren baldintzetara lotuta egin dirala obra egiaztatzen ez bada.

Era berean, solairu bakotxari ur-hornidurea mozten ez jakon arte ez jako emongo lizentziarik. Geroko erabiltzaileek formalizatuko dabe udaletxeko bulegoetan ur zerbitzuan abonadua izateko inskripzioa. Kontrasteak izango dau solairu bakotxean ur-hodia ebagiteko baldintzea ez betetearen erantzukizuna.

12.- Obra lizentzia, kasu honeetan iraugiko da, ordaindutakoa itzultzeko eskubide barik:

- Udalak ezarritako epe barruan obrak hasi ez diranean.
- Obrak hasi eta gero, sei hilebetetan etenda geratu diranean.
- Horretarako ezarri dan epe zehatzean, edo, egon leitekeen luzapenean obra amaitu ez diranean.

Epeak amaitu aurretik, arrazoitutako geldiarazpena edo berandutzea jakinarazo ezkeru udalari, edo ezinbestekoagaitik izan dala frogatu ezkeru, ez da kontuan hartuko epemugarik.


13.- Jabego eskubidea kenduta eta hirugarren pertsonen eskubideak gordeta emon dala baimena ulertuko da, eta onuradunak ezin izango dau erabili bere jardunean izandako erantzukizun zibila edo penala baztertzeko zein gixtitzeko.

14.- Lizentzia honetan aurreikusten ez dan guztirako, herriko arau subsidiarioek eta urigintzako ordenantzek xedatutakora egongo gara.

15.- Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak dinoana bete beharko da, era honetara: Obrearen seinaleak eta moeta guztietako oharak, segurtasun arauen panelak... euskeraz idatzita egongo dira. Euskeraz eta gaztelaniaz idatzi ezkeru, euskerazko testua bi aldiz handiagoa izango da.

Obrea egingo daben enpresek obran publizidadetik egitekotan, euskeraz egingo dabe; euskeraz eta gaztelaniaz egitekotan, lehentasun osoa emongo jako euskereari.

16.- Beste baldintza batzuk:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



- Eraikinaren barruan ipiniko da putzu septikoa eta 3.3. erregistro-tapea eukiko dau. Erkidegoaren jabetzako tokietan (kolarrean edo atarian, garajejan, arrapalan eta abarrean) jarriko da eta debekatuta dago loian ipintea.
- 100 metro koadru bakotzeko eta teilaturainoko aireztatze-tximiniaz horniduko da loiea. Tximinia barrukoa izango da eta ez da joango inoiz fatxadatik. Etxebizitzaren aireztatze-hodietatik kanpo egongo da.
- Oinaren okupazioa 100 metro koadrura heltzen ez diran orube txikietan, aitatutako aireztatze-tximinia aurreikusi beharko da, aurreko esan-multzotan azaldutako baldintzetan.
- CTE-DB-SI arauak ezarritakoa betez, kolar edo ataria, loa eta beste establezimendu enparaduetako atek kanporantz ireki beharko dira, kanpoko espazio publikoaren gunean sartu barik.
- Eskegita dagozan erropak ikustea guztiz eragotziko daben lamak edo saretak eukiko dabez eskegitokiek.
- Indarrean dagoan planeamenduko 4.4.4 puntua betez, babesteko hesi bat jarriko da obran, gitxienez metro 2ko altuerea eukiko dauena. Euki leiken edo leikezan atea edo atek barrurantz zabalduko dira eta lanorduetatik kanpo itxita egongo dira.
- Kontuan euki beharko da, oztopo arkitektonikoak kentzeari buruz indarrean dagoan araudi guztian ezarritakoa.
- Eraikin barrien fatxadak kable edo linea ezarpenak ipintetik salbuetsita geratuko dira (elektrizitatea, telefonia, eta abar). Lurrazpikoak izango dira honeek nahitaez.
- Obreagaz hasi aurretik, eskatzaileak obraren eraginez kaltetuta geratu leikezan kanalizazio eta zerbitzu guztiak ezagutu beharko dauz, eta, horretarako, hartu-emonak izan beharko dauz kalteak jasan leikezan enpresa guztiakaz, bakotxaren araudia kontuan izateko eta instalazioak zehatz-mehatz non dagozan jakiteko. Eskatzailearen erantzukizuna da aitatutakoak ez ezagutzea.
- Mueta honetako obrak egiten diran eraikinentzat indarrean dagoan araudi hau beteko da:
 - CTE
 - CTE-DB-SI
 - CTE-DB-SE
 - CTE-DB-SUA
 - CTE-DB-HS
 - CTE-DB-HE
 - CTE-DB-HR
- Obrak hasi aurretik, behar dan Zuinketa Aktea egin beharko da. Horretarako Bermeoko Udaleko Sail Teknikoari esan beharko jako, indarrean dagoan araudiak ezarten dauen moduan.

Akta horretan, obran gastau daitekeen ura neurtzeko kontagailurik dagoan egiaztatu beharko da. Kontagailurik ez badago ezin izango da aktarik izenpetu.

- 1/1998 eta 346/2011 errege-dekretuek ezarritakoaren arabera, telekomunikazioetako azpiegitura komuntentzat proiektu berezia agertu behar da obrak burutzeko proiektuan.
- Gas kontagailua eraikinaren barru aldean ipiniko da. Kanpora aireatuko da eta sarbideko atea barru aldetik eukiko dau. Gas instalazioa udaleko araudiari egokituko jako, sarbidea kolarretik edo ataritik eukiko dau eta banaketea, bertikala izango da, eskegitokietako barruko aldetik jarria; ezin izango da ikusi fatxadatik.
- 1991ko apirilaren 22ko erabagia, industria eta meategiak administratzeko zuzendariarena, etxeetan, jendea batzen dan lokaletan eta dendetan, gas-instalazioen ikuskapenei buruzko indarreko arau teknikoak ulertu eta apliketako behin betiko jarraibideak emoten dauzena.



- Obrearen hesian, kartel bat ipini beharko da, eta, bertan azalduko dira, lanaren hasierako data, eta amaitzeko epea be, horren barri guztiek izateko.
- Obra hondakinak eta lurra mobitea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan Arriskuen Prebentziorako "Prevención de Riesgos Laborales" Legea eta baliokideak bete beharko da.

Eraikitze era eraiste lanetako hondakinak kudeatzea: Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoa beteko da. Horrek esan gura dau, honeek hondakinak derrigorrez eroan behar dirala legeztatutako obra-hondakindegira. Lanak hasi orduko, obra-hondakindegiko titularrak emondako baimen-konpromisoa aurkeztu beharko da.

Lurra mobiteko lanetatik datozen hatx edo lurren kasuan, lurra bete eta egokitzeko be erabili leikez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila) baimena beharko da eta udalarena be bai, 5.000 m3tik beherako bolumenekoentzat.

Lizentzia emoten dauen erabagia behin betikoa da administrazio bidean, eta, erabagi horren aurka eta hemen jarritako edozein baldintzaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nagusiko Eskumeneko Salan. Aitatutako errekurtsoa jarri aurretik, baldintza legez, administrazio honi holan egingo dala jakinarazo beharko jako.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipinteko epea hilebete bikoa izango da, erabagi honen jakinarazpena hartzen dan hurrengo egunetik hasita.

Guiz hori, 1956ko abenduaren 27ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 58. artikulua eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikulua xedatutakoaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Data: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia



HIZTEGITXOA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa	Recurso Contencioso-Administrativo
Aireztatze-hodiak	Conductos de ventilación
Aireztatze-tximinia	Chimenea de ventilación
Arau subsidiarioak	Normas subsidiarias
Araudia	Normativa
Auzitegi Nagusiko Eskumenaren Sala	Sala de la Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia
Azpiegiturea	Infraestructura
Baldintzea	Condición
Bizigarritasun-zedulea	Cédula de habitabilidad
Epemugea	Vencimiento
Eraikina	Edificio
Erantzukizuna	Responsabilidad
Esan-multzoa	Párrafo
Eskegitokia	Tendedero
Harri-zolea	Empedrado
Ildo ofizialak	Líneas oficiales
Iraungi	Caducar
Jabeen erkidegoa	Comunidad de propietarios
Kitapena	Liquidación
Legegintzako Errege-Dekretua	Real Decreto Legislativo
Lerrokadurea	Alineación
Loiea	Lonja
Meategia	Mina
Objektu narriagarria	Objeto que puede deteriorarse
Obra-hondakindegia	Escombrera
Oholtzea	Tablado
Oina	Planta
Onuraduna	Beneficiado
Orubea	Solar
Oztopo arkitektonikoak	Trabas arquitectónicas
Salbuetsita	Exento
Sarbidea	Acceso
Trenkadea	Mampara, tabique
Urbidea	Conducción de agua
Urigintzea	Urbanismo
Zergea	Impuesto
Zigilua	Sello
Zuinketa Aktea	Acta de Replanteo

5.- 2022 URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO LIBURUKO ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xedea

2022 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdi publikorako oinarriak onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Datea: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



Aurrekariak

Lehenengoa: Urtero, Bermeoko jaietako liburuan artikuluak argitaratzen dira, laguntza moduan.

Bigarrena: 2015. urtean, lehenengo aldiz, Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak lankidetzan, oinarriak finkatu eta deialdi publikoa egitea proposatu eben.

Hirugarrena: Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak adostuta, oinarriak gaurkotu egin dira.

Argudioak

Lehenengoa: Oinarrietan, jaietako liburuko artikuluei buruzko zehaztasun guztiak adierazten dira.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikulua arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartu da, Tokiko Gobernu Batzarrak deialdi hau egiteko ahalmenaren delegazioa.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA: 2022. urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuan artikuluak idazteko eta argitaratzeko oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Deialdia zabaltzea 2022ko ekainaren 28ra arte, ATB Sailak jagokon iragarkia argitaratuz udaleko web orrian.

HIRUGARRENA: Erabagi honen barri Kultura eta Hezkuntza Sailari, Euskera Sailari eta ATB Sailari jakinarazotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

7.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Datea: 11/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4



Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E600099EDF00T4L2G6F9N5C4

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 11/05/2022
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 11/05/2022
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/05/2022
 08:47:45

DOCUMENTO: 20220630495

Fecha: 11/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
 Erregistro nagusia

